

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Onestea Burgeluko Udaleko Dirulaguntzen 2022-2024 plan estrategikoa

Burgeluko Udalbatzak, 2022ko abenduaren 26an egindako osoko ohiko bilkuran, erabaki zuen 2022-2024 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onestea. Jarraian erantsi da plan hori.

Burgelu, 2022ko abenduaren 26a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

BURGELUKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2024

Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen legeriak, alegia, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, funtsezko helburutzat du tradizioz sustapen eta bultzatze jarduera gisa ezagutzen den jarduera publikoa legeak berak ezartzen dituen parametroen barruan garatzea, aldez aurreko kontrolerako eta ondorengo ebaluaziorako mekanismo egokiak ezarriz, honako helburu orokor hauetan oinarrituta:

- Gizarte zibilak elkarteen eta erakundeen bidez egituratuta eta antolatuta eta baita partikularren bidez ere egiten duen interes publiko eta orokorreko jardueraren sustapena bultzatzea.
- Gizabanakoen gizareratzea eta sustapena bultzatzea, gizarte ahultasuneko egoeretan dauden herritarrei dirulaguntzak ematearen bidez. Eta, horretarako, legeriak ezartzen du jarduera horrek printzipio hauek bete behar dituela:
 - Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
 - Eraginkortasuna laguntzak ematen dituen administrazioak ezarritako helburuak betetzean.
 - Administrazioaren diskrezio ahalaren kontrola.
 - Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Horiek horrela, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntzak eman nahi dituzten administrazio publikoetako organoek dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi behar dute, eta honako hauek zehaztu behar dituzte bertan: dirulaguntzen helburuak eta haien bitartez lortu nahi diren ondorioak, horiek gauzatzeko epealdia, aurreikusten diren kostuak eta finantzabideak. Plana gauzatzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Gardentasuna da legearen printzipioetako bat, zeina beste aurrerapauso bat baita ekonomia sistema bikaintzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Horrek, legean ezarritako beste hainbat tresnarekin batera, zuzenean dakar dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia mailak handitzea.

Horren harira, dirulaguntzen gainean informazio zabalagoa izateak merkatuari eragin ahal dizkion distorsio eta oztopoak ezabatzeko bide emango du, eta administrazio publikoen jarduren osagarriak eta koherenteak izatea erraztuko du, bikoizketak ekidinez.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aurreikusten da dirulaguntzen plan estrategiko bat prestatzea, urte anitzekoa, baina urtez urte eguneratzeko modukoa, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Horregatik, udal honek dirulaguntzen plan estrategikoa onetsi du. Hona hemen artikulua:

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek plan honetan jasotakoaren arabera ezarriko ditu dirulaguntzak 2022-2024 aldira.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 2.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ez dira plan honen eremuan sartzen, dirulaguntzat hartzen ez baitira, Burgeluko Udalak beste administrazio publiko batzuei egiten dizkien diru ekarpenak, ez eta udalak bazkide den erakundeei ordaintzen dizkien urteko kuota ere.

2. artikulua

Plan honetan jasotako dirulaguntzak eman ahal izateko, derrigorrezkoa da urteko udal aurrekontuetan esleipenak egitea eta oinarri arautzaileak jasotzen dituzten ordenantzak edo oinarriak onestea.

3. artikulua

Dirulaguntzak emango dira baldin eta aurrekontu egonkortasunaren helburuak betetzen badira. Hortaz, onesten diren aurrekontu esleipenak eta horiek ematea arautzen duten oinarriak aipatutako helburuetara moldatu beharko dira unean-unean.

4. artikulua

Dirulaguntzen plan estrategikoa onestea ez du esan nahi balizko onuradunek eskubiderik dutenik, eta, plana ez bada bertan jasotako moduan gauzatzen, ezingo dute kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu.

II. kapitulua. Planaren edukia

5. artikulua

Plan honetan indarraldirako aurreikusten diren laguntza eta dirulaguntzen emakidak, eranskinean, honako hauek jasotzen ditu:

- Erdietsi nahi diren helburuak.
- Aplikagarria den emakida mota.
- Zein elkarte, entitate edo pertsona onuraduni zuzenduta dagoen.
- Urteroko aurrekontuetan ezarritako diru kopurua.

6. artikulua

Plan hau eranskin batean egituratzen da. Eranskinak dirulaguntza jasoko duen jardueraren zerrenda eta banakatzea dakar, eskumen arloen arabera.

7. artikulua

Aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntzak irizpide hauen arabera ordenatzen dira:

- Xedea: dirulaguntza zein helburutara zuzentzen den finkatzen da.
- Kudeaketa mota: emakidarako aplikatu beharreko prozedura finkatzen da, ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik.
- Dotazioa: dirulaguntza bakoitzerako aurrez jotako esleipena jartzen da.

III. kapitulua. Dirulaguntzen onuradunak eta zer arlotan emango diren

8. artikulua

Udalak dirulaguntzak emango ditu, norgehiagoka erako deialdi publikoaren edo lerro izendunen bidez, lankidetzak hitzarmenak sinatuz, pertsonen, elkarten edo erakunde pribatuen alde, onura publiko edo gizarte intereseko jarduerak egitea sustatzeko edo tokiko eskumenari dagozkion xede publikoak lortzea sustatzeko, erroldatutako pertsona fisikoak, elkarten erregistroan erregistratutako elkarteak edo erakunde pribatuak lehenetsiz, udalerrian errotuta daudenak eta jarduera egiaztatua dutenak, sortu berrientzat izan ezik.

9. artikulua

Udalak urtero ezarriko ditu dirulaguntzak planaren eranskinean zehaztutako gaitetan. Hala ere, Udalak plan hori eguneratu ahal izango du eremu berriak barnean hartuz, herri eta gizarte interesekoa baldin bada.

IV. kapitulua. Planaren kontrola eta ebaluazioa

10. artikulua

Alkatetzak kontrolatuko du plan hau betetzen den, indarrean den bitartean, eta udalbatzari emaitzen berri emango dio.

Dirulaguntza bakoitzaren eraginkortasuna aztertzeko, kasuan kasuko zerbitzuko teknikariek honako hauen berri emango dute: egindako ekintzen irismena, dirulaguntza jasotzen duten herritarren kopurua eta helburuen justifikazioa.

11. artikulua

Diruz lagundutako programen finantza kontrolaren arduraduna Udal Kontu-hartzaitza da, eta berak aztertuko ditu diruz lagundutako zenbatekoak ordaindu diren egunak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatutako betebeharren justifikazioa.

12. artikulua

Planaren indarraldia amaitutakoan, hurrengo plana egin aurretik, alkateak memoria aurkeztuko dio udalbatzari; bertan, gutxienez, hauek agertuko dira: plana zenbateraino bete den; dirulaguntzen eraginkortasuna eta efizientzia, lortu nahi ziren helburu eta ondorioei dagokienez; eta ondorioak, bai eta hurrengo dirulaguntzen plan estrategikoa taxutzeko iradokizunen proposamena ere.

Dirulaguntzen 2022-2024 plan estrategikoaren eranskina

Hezkuntza, kultura eta kirol arloan, udalak dirulaguntza lerro hauek ezarriko ditu plana indarrean dagoen aldirako:

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	URTEKO KOSTUA	FINANTZAKETA	EMATEKO PROZEDURA
Xedea: kirol jarduerak sustatzea Onuraduna: Landederra Kirol Kluba	Txirrindularitza atala: ziklo-kros erako txirrindularitza proba bat antolatzea Ibilketa nordiko atala: estatu eta toki mailako proben antolaketan parte hartzea	Herritarren artean kirol jarduera bultzatzea eta udalerria sustatzea	Txirrindularitza atala: 2.500,00 € Ibilketa nordiko atala: 1.000,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: kirol jarduerak sustatzea Onuraduna: Ekhitarrak kirol taldea	Landederra udal kiroldegian partidu ofizialak jokatzeko	Oro har, herritarren artean kirol jarduera bultzatzea eta, bereziki, emakumeen kirola eta udalerria sustatzea	1.000,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: hezkuntza eta kultura jarduerak Onuraduna: Tekno-club	Klubak udalerriatik kanpoko txapelketetan parte hartu ahal izatea	Robotika sustatzea, gazteen artean interes zientifikoa bultzatzea hainbat jardueraren bidez, eta udalerria sustatzea	1.000,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: kultura eta jolas jarduerak Onuraduna: Zidorra Pilota Kluba	Landederra udal kiroldegian partidu ofizialak jokatzeko	Herritarren artean kirol jarduera bultzatzea, eta udalerria ere sustatzea	500,00€	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: Kultura eta jolas jarduerak Onuraduna: administrazio batzarrek eta jai batzordeak	Udalerriko herritarren jaiak egin daitezten sustatzea	Ekitaldi tradizionalak egin daitezten sustatzea	2.500,00€	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: kirol jarduerak sustatzea Onuraduna: Manuel Salgado	Udalerrian Rallya sustatzea	Kirol modalitateak ezagutaraztea eta sustatzea udalerrian	3.000,00€	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna

Lurralde orekaren arloan, udalak dirulaguntza lerro hauek ezarriko ditu plana indarrean dagoen aldirako:

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	URTEKO KOSTUA	FINANTZAKETA	EMATEKO PROZEDURA
Xedea: inbertsioak finantzatzea Onuraduna: Añuko Administrazio Batzarra	Bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetan egindako inbertsio gastuak finantzatzen laguntzea	Udalerriko administrazio batzarretan ematen diren zerbitzuen maila parekatzea	6.000,00 €	Funts propioak: VII. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: inbertsioak finantzatzea Onuraduna: Arbuluko Administrazio Batzarra	Bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetan egindako inbertsio gastuak finantzatzen laguntzea	Udalerriko administrazio batzarretan ematen diren zerbitzuen maila parekatzea	6.000,00 €	Funts propioak: VII. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: inbertsioak finantzatzea Onuraduna: Argomaizko Administrazio Batzarra	Bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetan egindako inbertsio gastuak finantzatzen laguntzea	Udalerriko administrazio batzarretan ematen diren zerbitzuen maila parekatzea	6.000,00 €	Funts propioak: VII. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: inbertsioak finantzatzea Onuraduna: Burgeluko Administrazio Batzarra	Bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetan egindako inbertsio gastuak finantzatzen laguntzea	Udalerriko administrazio batzarretan ematen diren zerbitzuen maila parekatzea	6.000,00 €	Funts propioak: VII. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: inbertsioak finantzatzea Onuraduna: Gazetako Administrazio Batzarra	Bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetan egindako inbertsio gastuak finantzatzen laguntzea	Udalerriko administrazio batzarretan ematen diren zerbitzuen maila parekatzea	6.000,00 €	Funts propioak: VII. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: inbertsioak finantzatzea Onuraduna: Ixonako Administrazio Batzarra	Bere eskumenekoak diren zerbitzu publikoetan egindako inbertsio gastuak finantzatzen laguntzea	Udalerriko administrazio batzarretan ematen diren zerbitzuen maila parekatzea	6.000,00 €	Funts propioak: VII. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna

Gizarte ekintzaren arloan, udalak honako dirulaguntza lerro hauek ezarriko ditu planaren indarraldian:

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	URTEKO KOSTUA	FINANTZAKETA	EMATEKO PROZEDURA
Xedea: Gizarte laguntza Onuraduna: Elikagai bankua	Gizarte larrialdietako egoerei erantzutea	Biztanleria ahulenaren zailtasun ekonomikoko egoerak arintzea	1.000,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: Garapenean laguntzea Onuraduna: Euskal Fardoak elkarte	Garapen bidean dauden herrialdeen garapen jasagarria sustatzen duten proiektuei eta programei laguntzea	Garapenerako nazioarteko lankidetzak ekimenak sustatu, lagundu eta koordinatzea, eta bereziki, euskal toki erakunde eta entitateetatik egiten direnak	2.500,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: Gizarte laguntza Onuraduna: Argia emakume taldea	Batetik, Latinoamerikan proiektu solidarioak sustatzeko funtsak biltzea, eta bestetik herritarren artean laguntza sareak sendotzea	Udalerriko emakumeen arteko harremanak sustatzea, eta herritarren elkartasun espiritua bultzatzea	1.000,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna

Hizkuntza normalizazio arloan, udalak dirulaguntza lerro hauek ezarriko ditu plana indarrean dagoen aldirako:

DIRULAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DENA	URTEKO KOSTUA	FINANTZAKETA	EMATEKO PROZEDURA
Xedea: euskararen erabilera sustatzea Onuraduna: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK)	Bi urtean behin, dirulaguntzarekin euskararen erabilera sustatu eta normalizatu nahi da	Euskararen erabilera sustatzea esparru batzuetan	600,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: izenduna
Xedea: euskararen erabilera sustatzea Onuraduna: herritarak, oro har	Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea	Euskararen erabilera sustatzea esparru batzuetan	2.000,00 €	Funts propioak: IV. kapitulua	Dirulaguntza mota: norgehiagoka

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2022ko abenduaren 26a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA